



UDALAK ASFALTOZ EDO HORMIGOIZ ZOLATUTAKO BASERRI BIDEEN APROBETXAMENDU BEREZIA ARAUTZEKO ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2011/10/26an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011/11/08an

Aldaketak:

- **1.aldaketa:**

Eranskinean jasotako bide zerrendatik "ID 279: Arrasateko mugatik Gongeta baserrira doan bidea" kentzea.

Onartuta: Udaltzak 2011/11/28an

Argitaratua: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013/11/25ean

UDALAK ASFALTOZ EDO HORMIGOIZ ZOLATUTAKO BASERRI BIDEEN APROBETXAMENDU BEREZIA ARAUTZEKO ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea.

Udal honek —Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25. artikuluan aurreikusitakoari, eta honekin zerikusia duten gainontzeko lege-arauei jarraituz arautzera doa Udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri-bideen denontzako erabilera berezia; horrela, ibilgailu astunek (batez ere lurra, egurra, enbor-zatiak eta beste material - batzuk garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek) pasatzerakoan eragiten duten egoera txarra ekiditeko asmoz.

2. artikulua. Eremua.

Arau honek udalerrri osoan udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri-bide guztietan izango du indarra. Bide guzti horien zerrenda Udaletxean egongo da, interesatuen eskura.

3. artikulua. Baimena.

Bide horiek erabili ahal izateko, aurretik udal-baimena lortu beharko da honako kasuetan:

- Egurra eta enbor-zatiak ateratzea.
- Harrobi-materiala ateratzea.
- Betelanak egiteko, partzelak egokitzeko eta abarretarako 5.000 m³-tik gorako lurra garraiatzea.
- Hondakinak hondakindegietara botatzea.

Baimena izateko, ordenantza fiskalean ezarritako tasa ordaindu behar da eta baita fidantza ezarri ere.

Baimenak lurretako edo ustiategietako jabeek eskatu beharko dituzte. Horretarako, honako datu hauek eman beharko dituzte:

- a) Jabe eskatzailearen datuak.
- b) Garraiorako erabiliko diren ibilgailuen datuak; besteak beste, matrikula, baimendutako gehieneko masa (BGM), egingo diren bidaien kopurua, eta bidaia bakoitzean garraiatuko den karga eta erabiliko den bide-zatia zehaztu beharko ditu.
- c) Garraiatuko den kargaren bolumena, estereotan edo m³-tan.
- d) Garraialdiak zein egunetan hasi eta bukatuko diren.
- e) Materiala biltegitatu behar bada, zein tokitan egingo den.
- f) Partzelaren izena eta kokapena eta, kasuan kasu, katastro-erreferentzia.
- g) Udalak beharrezkotzat jotako beste edozein datu.

Eskabidea Udalak emango dion inprimakian egingo du, eta Erregistro Orokorrean aurkeztuko da; eskabidearekin batera, eta behar izanez gero, egin beharreko mozketarako dagokion agintariak emandako baimena ere aurkeztu beharko du.

4. artikulua. Debekuak.

Ondoren aipatzen diren ibilgailu-motak guztiz debekatuta dute ordenantza honetan arautzen diren baserri-bideetan ibiltzerik:

- Beldar-ibilgailuak.
- Katez lotutako ibilgailuak.
- Lur gainetik irristatuz dabiltzan ibilgailuak.
- Errodatze-banda duten ibilgailuak.

BERGARAKO UDALA

Udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri bideen aprobetxamendu berezia arautzeko ordenantza

— Baimendutako gehieneko masa (BGM) 26 tonatik gorakoa duten ibilgailuak.

5. artikulua. Erabakitzeko epea.

Eskaerak erabakitzeko gehieneko epea 30 lanegunekoa izango da, eskabidea eta dagokion dokumentazio guztia aurkeztu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Epe hori igarotakoan, ez bada erabakirik jakinarazi, eskaerari baiezkoa eman zaiola ulertuko da.

Baimena emandakotzat jotzeko, dagozkion tasak ordainduta eta fidantza ezarrita egon beharko dira. Horrenbestez, baimena emandakotzat jotzeko, zehaztutako tasak ordaintzeko eta fidantza ezartzeko gehienez ere 15 eguneko epea izango dute, baimena ematen denetik kontaktzen hasita, baina edozein kasutan ere, bidea erabili aurretik bete beharko da.

6. artikulua. Luzapena.

Baimenean zehaztutako egunerako aprobetxamendua oraindik amaitu ez bada, luzapena eskatu beharko da.

7. artikulua. Agiriak erakustea eta zaintzea.

Garraiolariak, garraioan diharduen edozein unetan, udal erabakiaren jatorrizko agiria edo kopia aurkeztu beharko du, eta baita tasak ordaindu eta fidantza ezarri izanaren egiaztatiriak ere. Aipatutako udaltzain edo udal agintariei erakutsi beharko zaizkie, haiek agindutako guztietan.

8. artikulua. Fidantza.

Fidantzak erantzungo die ezarritako zigorrei, erabilera okerragatik, nahita edo nahi gabe, bidean eragindako kalteei, edota Udalak ezarritako baldintzak bete gabe erabiltzeagatik eragindako kalteei.

Fidantza dirutan edo banku-abalaren bidez ezarri ahal izango da.

Fidantzaren zenbatekoa ondorengo eskala honen arabera zehaztuko da:

<i>Erabiliko den bide-zatiaren luzera</i>	<i>Fidantza</i>
1 km-raino	1,35 €/est. o 2,03 €/m ³ .
1etik 2 km-raino.	1,95 €/est. o 2,93 €/m ³ .
2 km-tik gora	2,85 €/est. o 3,38 €/m ³ .

Hala ere, gutxieneko fidantza edozein kasutan 1.500 eurokoa izango da katastro-partzela bakoitzeko.

9. artikulua. Bideak garbitzea.

Baimendutakoek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideok edozein erabileratarako prest izango direla, aprobetxamenduak irauten duen bitartean beharrezkoak izan litezkeen garbiketak eginez. Hala egiten ez bada, zeregin honetaz udala bera arduratuko da, baina haien kontura.

Horretaz gain, aprobetxamendu-baimena dutenek ahal duten guztia egin beharko dute bideetatik dabiltzanei eragozpenik ez eragiteko; ezingo da utzi bideetan ez enborrik, ez adarrik. Gainera, ibilgailuek bidean utz ditzaketan lurrak, harriak, etab. berehala kendu beharko dituzte.

10. artikulua. Txosten teknikoak.

Udal zerbitzu teknikoek ikuskapenak egin eta bideetako egoeraren berri emango dute, aprobetxamenduaren aurretiko eta ondorengo egoerak konparatuz. Txostenetan, lagungarri gisa, argazkiak, dokumentu planimetrikoak, ikus-entzunezkoak, etab. sartu ahal izango dira.

BERGARAKO UDALA

Udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri bideen aprobetxamendu berezia arautzeko ordenantza

11. artikulua. Konponketa-lanak.

Txosten teknikoak ikusita, bidean konponketarik egin beharko balitz, baimena eman zaionari egin beharreko konponketen berri emango zaio, lanok egiteko epea jakinaraziz. Epe hori bukatu eta konponketok egin gabe badaude, aurrez ezarritako fidantzatik kenduko da haien kostua. Fidantzako diru-kopurua nahikoa ez balitz, falta den zenbatekoa exijituko zaio harik eta kalte guztiak ordaindu arte.

Egindako kalteak konponezinak balira, hondatutako ondasunen edo eragindako kalteen balioa ordaindu beharko zaio Udalari.

Baserri-bide berean aprobetxamenduan pertsona edo enpresa bat baino gehiago aldi berean aritzea gertatzen bada, kalterik sortuz gero, horren erantzukizuna era ekitatiboan banatuko da erabiltzaileen artean, ez bada behintzat egiaztatzen horietako batek egin duela edo batek besteak baino kalte gehiago sortu duela. Egiaztatze hori erabiltzaileek egin beharko dute, eta ondorio horietarako partzelaren titularra hartzen da erabiltzailetzat.

12. artikulua. Baja aitortzea.

Aprobetxamendua bukatutakoan, interesatuek Udalari jakinaraziko diote, Erregistro Orokorrean idatzi bat aurkeztuz. Idatzia aurkeztu ondoren, Udalak fidantza itzuliko du, horrela balegokio.

13. artikulua. Harrobiak eta hondakindegia.

Bideak harrobi-materialak garraiatzeko edo hondakindegietara hondakinak eramateko erabiltzen badira, jarduera horiek egiten dituzten enpresak arduratuko dira bideak mantentzeaz, haien ibilbide guztian zehar.

Aldizka, udal zerbitzu teknikoek bideak ikuskatuko dituzte, eta antzemandako kalte guztiak enpresek konpondu beharko dituzte.

14. artikulua. Arau-urratzeak eta zigorrak.

14.1. Honako Ordenantzaren ondorioetarako, arau-urratzeak honela sailkatuko dira: Oso larriak, larriak eta arinak.

A. Honako hauek arau-urratze oso larriak dira:

— Ordenantza honen 4. artikuluan zehaztutako debekuak ez errespetatzea.

B. Honako hauek arau-urratze larriak dira:

— Baserri-bideak ordenantza honetan aurreikusitako kasuetarako erabiltzea, baina aurrez udalaren baimenik izan gabe, tasarik ordaindu gabe edota fidantzarik ezarri gabe.

C. Honako hauek arau-urratze arinak dira:

— Ordenantza honetan jasotako betebeharrak eta debekuak ez betetzea, betiere ez-betetze hori ez bada larritzat edo oso larritzat jo.

14.2. Zigorrak.

Arauk urratuz gero, honela zigortuko da:

— Arau-urratze oso larriak, 300 euroko isuna.

— Arau-urratze larriak, 250-299 euro bitarteko isuna.

— Arau-urratze arinak, 200-249 euro bitarteko isuna.

14.3. Arau-urratze batek eragindako zigor-espeditenteak honela hasi daitezke:

a) Partikular batek Udalean idatziz salaketa bat aurkezten duenean.

b) Udalak berak ofizioz.

BERGARAKO UDALA

Udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri bideen aprobetxamendu berezia arautzeko ordenantza

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau hamabost egun balioduneko epean sartuko da indarrean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Ordenantzak eragina duen baserri bideen zerrenda

- ID 242: Bergara-Azkoitia errepidetik Kortabarri baserrira doan bidea.
- ID 243: Bergara-Azkoitia errepidetik Egiaga Goikoa baserrira doan bidea.
- ID 244: Osintxu-Bolutik Iturbieta baserrira doan bidea.
- ID 245: Osintxutik Soraluzeko Egotza baserrira doan bidea.
- ID 246: Unzeta baserrira datorren bidea.
- ID 249: Ubera Goena baserritik Egurbide Zaharra baserrira doan bidea.
- ID 250: Elgeta-Ubera errepidetik Agirrezezeaga baserrira doan bidea.
- ID 251: Elgeta-Ubera errepidetik Idarraga Gaineakoa baserrira doan bidea.
- ID 252: Elgetako errepidetik Egurbide baserrira doan bidea.
- ID 255: Elgetako errepidetik Artiz-Ubera baserrira doan bidea.
- ID 256: Elgetako errepidetik Artiz-San Juan baserrira doan bidea.
- ID 257: Elgetako errepidetik Atxotegi baserrira doan bidea.
- ID 258: Elgetako errepidetik Narbaiza-Goikoa baserrira doan bidea.
- ID 259: Elgetako errepidetik Santikurutz ermitara doan bidea.
- ID 260: «Unión Cerrajera»tik Santa ermitara doan bidea.
- ID 261: Elgetako errepidetik (Elortza gaina) Lizarralde baserrira doan bidea.
- ID 262: Gallastegi Torre baserritik Arangurentxo baserrira doan bidea.
- ID 263: Soraluzeko mugatik Intxuzabal baserrira doan bidea.
- ID 264: Ondarroa-Gasteiz errepidetik Olazabal baserrira doan bidea.
- ID 265: Osintxuko errepidetik Izarre baserrira doan bidea.
- ID 266: Mekolaldeko zubitik Laudatz baserrira doan bidea.
- ID 267: Zubiberri zubitik Mieka baserrira doan bidea.
- ID 268: Bergara-Azpeitia errepidetik Larrarte baserrira doan bidea.
- ID 269: Bergara-Azpeitia errepidetik Ugabide baserrira doan bidea.
- ID 271: Ozaetako zubitik San Migel ermitara doan bidea.
- ID 272: Olako zubitik (Ipiñarri baserritik) Etxague baserrira doan bidea.
- ID 273: Bergara-Gasteiz errepidetik Aierdi Gaineakoa baserrira doan bidea.
- ID 274: Bergara-Gasteiz errepidetik Zigarrokerokoa baserrira doan bidea.
- ID 275: Bergara-Gasteiz errepidetik Gorosabel baserrira doan bidea.
- ID 276: Elgeta-Kanpanzar errepidetik Galarraga baserrira doan bidea.
- ID 277: Elgeta-Kanpanzar errepidetik Altamira baserrira doan bidea.
- ID 278: Kanpanzar gainera Lopaldoste baserrira doan bidea.
- ID 280: Angiozarko kaletik Ugarte baserrira doan bidea.
- ID 281: Angiozarko errepidetik Eguzkitza baserrira doan bidea.
- ID 282: Bide-adar txikia, Jauregi Etxetxo baserriko ate-aurreak.
- ID 283: Angiozar-Asenzio errepidetik Arregi Torre baserrira doan bidea.
- ID 284: Angiozarko kaletik kanposantura doan bidea.
- ID 285: Elizalde auzuneko baserrietara joateko bideen multzoa.
- ID 286: Bergara-Angiozar errepidetik Loidi Etxeberri baserrira doan bidea.
- ID 287: Bergara-Angiozar errepidetik Askasibar baserrira doan bidea.
- ID 288: Bergara-Angiozar errepidetik Meltxorrena baserrira doan bidea.
- ID 289: Bergara-Angiozar errepidetik Eduegi baserrira doan bidea.

BERGARAKO UDALA

Udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri bideen aprobetxamendu berezia arautzeko ordenantza

ID 290: Eduegi baserritik Amuzkibar Bolu baserrira doan bidea.
ID 291: Bergara-Angiozar errepidetik Garitano baserrietara doan bidea.
ID 292: Ozaetako zubitik Iribien baserrira doan bidea.
ID 293: Santa Marina parrokiatik Lamariano Torre baserrira doan bidea.
ID 295: Tavesa-tik Elorregi Domiñena baserrira doan bidea.
ID 299: Arrasaterako bidea, Olan, Aldazpe baserrirako bide-adarra.
ID 300: Kanpanzar gaineko bidea, Sagasta baserrira doan adar-bidea.
ID 301: Azkoitia-Zumarraga errepidetik Etxeberri baserrira doan bidea.
ID 303: Elgeta-San Juan auzoa errepidetik Agirretxo baserrira doan bidea.
ID 2704: Errepide nagusitik Aumategi baserrira doan bidean hainbat zati.
ID 3291: Osintxuko Olani baserrira doan bidea.
ID 3298: Arizmendi baserrira doan bidea.
ID 3299: Lugarri baserrira doan bidea.
ID 3434: Uberako Anduri baserrira doan bidea.
ID 3435: Pagaldai Goikoa baserrira doan bidea.
ID: San Juan auzoko Munabe baserrira doan bidea.
ID: Angiozarko Bolintxo baserrira doan bidea.
ID: Angiozarko Zelaitxueta baserrira doan bidea.
ID: Angiozarko Garraztegi baserrira doan bidea.
ID: Elorregiko Artzubi eta Luberri baserrien arteko bidea.
ID: Osintxuko Bitxurtu baserrira doan bidea.
ID: Osintxuko Mugarri baserrira doan bidea.
ID: Osintxuko Bolu baserritik Galartza baserrira doan bidea.

BERGARAKO UDALA

Udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri bideen aprobetxamendu berezia arautzeko ordenantza